


Haur literatura

Errotondan bueltaka
Leire Bilbao
Ilustrazioak: Eider Eibar

Elkar, 2015



Fantasia murgilduta

EGOERA SINPLE eta arrunt batetik abiatuta Leire Bilbao obra irudimentsu eta fantastikoa aurkezten digu; errealitate kutsua du hasieran, Urko eskolara joateko prestatzen denean, berandu ibili eta txiza egin barik autobusera igotzen denean. Horixe dugu ondorengo gertakari guztien abiapuntua eta arrazoia. Urkok, autobusean, gero eta txizagura handiagoa du eta errotonda baten ondoan, semaforoa gorri jarrita, jaitsi egiten da une batez txiza egiteko. Jakina, autobusak ihes egingo dio eta mutikoa errotonda barruan geratuko da, lurralde aparte batean, miresgarrian, motxilan daraman *Alizia berrialde miresgarrian* liburuaren antzeko egoera batean.

Nonsense-a, edo zentzugabea dugu Lewis Carrolle nobelaren ezaugarri nagusi, eta antzekoa da Leire Bilbaoen ipuin hau; etengabe errotondan zuloak egiten dituen satorren atzetik abiatuta hainbat pertsonaia eta egoera xeble ezagutuko ditugu. Bonbillaz betetako oreina, semaforoko gizontxoak... edo hitz egiten duen harria:

“-Aizu, badakit buru gogorra dudala... baina ez dut zure hanketako usaina zertan jasan -esan du sudurra itxita duenaren ahotsarekin.

-Hara! Falta zitzaidan bakarra! Berbetan dakien harri bat -esan dut oiherri batekin.

-Ni ez naiz harri bat. Ni Harry naiz -esan du irmo”.

Zentzugabea izateak badu umoretik ere zerbait, xeble baita Urkori gertatzen zaiona, xeble break

aurkitzen dituen lagunak eta xeble break haien arteko elkarrizketak.

Kontakizuna gertakariz, kapitulu laburrez osaturik egoteak laguntzen du irakurketan, handik eta hemendik pikatzen ari den pertsona dugu irakurlea, eta denbora pasaren sententzioa astiro gertatzen bada ere, egunak aurrera egiten du.

Autobusa bueltan, errotondan dagoela... “Andereño Mirenek nigan erreparatu du, edo hori iruditu zait behintzat, bere aurpegi izutua ikustean. (...)

-Txizalarri nintzen, andereño. Eta ezin izan diot barrua husteko premiari eutsi.

-Azkar, sartu zaitez barrura! Zure amak jakiten badu! -esan du-. Ez, hobe jakiten ez badu -gehitzeko gero”.

Ikusten den bezala, errealitate gordinena fantasia handienarekin batera agertzen dira kontakizun entretenigarri eta atsegin honetan. Eta tonu hori Eider Eibarren irudietan ere islaturik dugu; kolore bizi, ikuspegi ezberdin, neurri eta forma diferentek, kontakizunaren haria osatuz eta aberastuz.

Errotondan bueltaka liburuko orrietan murgiltzen den irakurlea, untxiaren atzetik zihuan neskatoaren antzera, mundu fantastikoan murgilduko da harik eta Tiranosaurioa, barka autobusa, agertu arte; gure errealitatera itzuli arte. ■

Xabier Etxaniz Erle



Liburu azoka

Donostian, irailaren 4tik 20ra Gipuzkoa plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!